

Donostia, 2017ko abenduaren 15a

IDAZKARI NAGUSIARI

ADMINISTRAZIO KONTSEILUETAN PAREKIDETASUNA BERMATZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, udal sozietate publikoetako administrazio kontseiluetan parekidetasuna bermatzeko beharrari buruz hilabete honetako PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Emakumeek erabakigune guztietan, hala politikoetan nola enpresa mailakoetan, parte hartzea funtsezkoa da demokrazia eta garapen ekonomikoa bera sendotzeko.

Beijingo Plataformaren Adierazpenak honela jasotzen zuen 13. puntuari duela hogeita hiru urte baino gehiago: “Emakumearen rola indartzea eta emakumeek gizartearen esparru guztietan (erabakiak hartzeko eta boterea eskuratzeko prozesuetan, besteak beste) baldintza berdinetan eta bete-betean parte hartzeko aukera izatea funtsezkoak dira Berdintasuna, Garapena eta Bakea lortzeko”.

Emakumeek erabakiguneetan parte hartzea aspaldiko kezka da Europar Batasunean. Europako Batzordeak, 2010eko irailean Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 2010-2015 Estrategia berria onartu zuenean, eztabaida politikoaren muinera eraman zuen lidergo postuetan genero aniztasunaren gaiak duen garrantzia; hain zuzen, azpimarratu zuen beharrezkoa dela lan merkatuan, gizartean eta politika eta enpresa mailako erabakiguneetan emakumeen egoera hobetzea.

Euskadin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Euskal Legeak zenbait neurri jasotzen ditu emakumeen ordezkartza behar baino apalagoa den esparruetan haien presentzia

areagotzeko. Honela dio Printzipio Orokorrei buruzko atarikoak eta, zehazki, ordezkaritza orekatuari buruzko 3.7. artikulua: “Euskal agente publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan”.

Era berean, III. kapituluan (Zenbait esku hartze arlotan berdintasuna sustatzeko neurriak), eta zehazki 24. artikuluan, Administrazioaren beraren “ardurapeko” elkarte edota enpresa erakundeen zuzendaritza postuetan ordezkaritza orekatua gorde beharra aipatzen da: “Euskal herri administrazioek sustatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadila profesionalen, enpresaren, gizarte ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundeen zuzendaritzako organoetan”.

Alabaina, egoera oso bestelakoa da, eta gaur egun emakumeen ordezkaritza oso apala da enpresa eta politika esparruko erabakiguneetan.

Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planak (2014-2018), Gobernantzari buruzko esku-hartze ildoan, zenbait helburu jasotzen ditu, eta, horien artean, nabarmentzekoak dira honako hauek: berdintasunaren printzipioa administrazioaren jardunean integratzea, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legean jasotako neurriak aplikatzen direla bermatzea (lege horrek, arestian aipatu dugunez, zuzendaritzako organoetan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea du xede).

Hori dela eta, gai honetan ardura duen eragileetako bat den aldetik, Udalari eskatzen diogu beharrezko neurriak jar ditzala martxan, Udalak ordezkaritza duen enpresa guztietan parekidetasuna egiazkoa izateko eta, modu horretara, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasun egiazkoa eta eraginkorra eta justizia soziala bideratzen laguntzeko.

1. Donostiako Udaltzarak Gobernu Taldeari eskatzen dio beharrezko eginbideak egin ditzala udal enpresetako, udalak partaidetza eta presentzia duen enpresetako administrazio kontseiluetan genero parekidetasuna bermatzeko.
2. Donostiako Udaltzarak Gobernu Taldeari eskatzen dio egin dezala diagnostiko bat genero aldetik erabaki organo horien osaera nolakoa den jakiteko, eta txosten bat, egin beharreko ekintzak eta horiek garatzeko epeak jasoko dituen, ekintza horien bidez aipaturako erabakigune eta postuetan genero aldetik egon daitezkeen desorekak arintzeko eta konpontzeko.
3. Donostiako Udaltzarak Gobernu Taldeari eskatzen dio gai honetan aurrerapausoak eman ditzala, eta orain arte parekidetasuna lortzeko “genero orekaren” adierazletzat hartu izan den % 40-60 muga hori gaindi dezala. Hala, udal enpresetako eta udal partaidetzako enpresetako kontseiluetan parekidetasuna lortzeko, planteamendua da kontseilu horiek % 50 gizonez eta % 50 emakumez osatuta egotea, ehuneko hori oztopo izan gabe emakumeen ordezkariak hortik gorakoa izateko.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.